

2026 URTEAN HERNANIKO AUZO-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA.

I.KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Xedea

Dirulaguntza hauen xedea da auzo-elkarteen funtzionamendua erraztea eta auzoa hobetzeko egiten diren proiektuak nahiz jarduerak bultzatzea, hala nola, jaiak eta kultur-jarduerak antolatzea.

Laguntza honek ondorengo helburuak ditu:

1. Auzo-elkarteen funtzionamendua laguntzea
2. Lokalen alokairua ordaintzea
3. Kultur Bira antolatzea
4. Auzoetako jaiak diruz laguntzea
5. Auzo-elkarateek antolaturiko kultur-jarduerak diruz laguntzea

2. Artikulua. Aurrekontua eta programak

Dirulaguntza honen zenbatekoa ondorengo partidaren kontura egingo da:

- 1.910.481.02.334.10 2026 (4564). Dirulaguntzak norgehiagoka kultura. Auzo-elkarateak.
- Dirulaguntza lerro horretako aurrekontua 158.500,00 eurokoa da.

Kopuru hori horrela banatuko da:

1. Funtzionamendurako, gehienez 15.600,00 euro, auzo-elkarte bakoitzak 1.200,00 euro.
2. Alokairuetarako, gehienez, 18.000,00 euro.
3. Kultur Birarako, gehienez, 18.000,00 euro, auzo-elkarte bakoitzak 1.500,00 euro gehienez.
4. Behin kopuru horiek banatuta, partidatik soberan geratzen den dirua modu honetan banatuko da:
 - %70, auzoetako jaiak diruz laguntzeko. Auzo-elkarte guztiek ehuneko bera.
 - %30, auzoetako kultur-jarduerak diruz laguntzeko. Auzo-elkarte guztiek ehuneko bera.

* Salbuespenak salbuespen, portzentaje horiek aldatu ahal izango dira egoeraren edo eskaeraren arabera.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezingo du diruz lagundutako jardueraren kostua gaintitu, ez bakarrean harturik, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin batera.

3. Artikulua. Organo eskuduna

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, alkateak 2023ko uztailearen 10ean emandako eskuordetze Dekretuaren arabera.

4. Artikulua. Interpretazioa eta araubidea

Dirulaguntza emateko ardura duen organo berari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sortzen den edozein zalantzari buruz erabakitzea.

Oinarri horietan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte dirulaguntzak:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailearen 21ekoa.
- Hernaniko Udalaren udal dirulaguntzen araudia 2004koa (GAOn argitaratua 2005-02-18)

• Hernaniko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa 2026-2028 (GAOn argitaratua 2025eko abenduaren 15ean)

II.KAPITULUA

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERAK ETA ONURADUNAK

5. Artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza horiek eskatzeko aukera izango dute legez osatu eta Hernaniko Elkartearen Udala Erregistroan inskribatuta dauden elkarteek; horrez gain, beren egoitza eta jarduera-esparrua Hernanin izan beharko dute.

Deialdi honetako aplikazio eremutik kanpo geratuko dira ondoko jarduerak:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2. eta 3. artikuluetan aurreikusitako gertaeraren bat jasotzen dutenak.
- b) Hernaniko Udaleko jarduera eremuekin erlazio zuzenik ez duten helburuak edota izaera dituztenak.
- c) Edozein motako zerga-betebeharrak betetzen ez dituzten entitateek eta elkarteek aurkeztutako eskaerak, herri izaera eta gizarte segurantza dutenak barne. Egiatzenak administrazioak egingo ditu.
- d) Udalak hala eskatuta, aurreko deialdietan emandako dirulaguntzei buruzko edozein dokumentazio oraindik eman gabe duten jarduera edota programa bati buruzko eskaerak ez dira kontuan izango.
- e) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa betetzen ez dutenak; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- f) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio irizpideetatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkartearen eskabideak.

6. Artikulua. Dirulaguntza emateko irizpideak

Aurkeztutako eskaeren izapideak egitea Kultura Sailari dagokio, eskaerak aztertu eta ebaluazioa egiteaz arduratuko baita honako irizpide hauen arabera:

Funtzionamendu Gastuak

Eskaera egiten duen auzo-elkarte bakoitzak 1.200 euro jasoko ditu funtzionamendu gastuetarako.

Lokala alokatzeko partida

Beren jarduerarako lokalik ez duten auzo-elkartearen kasuan, Udalak lokal bat alokatzeko laguntza emango die, bai eta lokal horretako hornidura gastuak (elektrizitatea, gasa, ura...) ordaintzeko ere.

2026. urtean, dirulaguntza honetarako guztizko kopurua gehienez 18.000 euro izango da (zerga guztiak barne).

Lokala alokatu aurretik, Kultura Sailari jakinaraziko zaio lokalaren kokapena, tamaina eta hilabeteko alokairu prezioa. Herritarren Zerbitzuak Batzordeari dagokio proposamena onartzea edo ezatea.

Auzo-elkarteak alokairuaren dirua jasotzeko eskaera-orian dagokion atala bete beharko du, eta justifikazioa egiteko orduan, urteko faktura guztiak aurkeztu beharko ditu.

Auzo-elkarteari dagokio lokala txukun eta baldintza egokietan mantentzea.

Beste lokal bat libre geratu eta Udalak auzo-elkarteari eskainiz gero, alokairua bertan behera geratuko da eta Udalak proposatutako lokala erabili beharko du auzo-elkarteak, betiere auzo-elkartearen jarduerarako beharrak betetzen baditu.

Kultur Bira

Kultura sustatu eta kultur-jarduerak auzoetara deszentralizatzeko helburuarekin, Udalak gehienez 18.000 euro bideratuko ditu auzoetan kultur-jarduerak antolatzena.

Kultur Bira izeneko egitasmo honetan, auzo-elkarteek beren borondatez parte hartuko dute, eta emanaldi guztiekin zirkuitu bat osatuko da, kultur eskaintza auzoetara zabalduz.

Auzo bakoitzaren jarduera 1.500,00 eurotan lagunduko da gehienez. Jardueren aurrekontua gehinezko kopuru hori baino baxuagoa bada, soberan geratzen den dirua jaiak eta kultur-jarduerak antolatzeko kopuruari erantsiko zaio eta auzo-elkarte guztien artean banatuko da.

Auzoetako jaietarako dirulaguntzak.

Onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten guztiei aurkeztutako aurrekontuaren % berdina emango zaie. Aurrekontu igoerek muga bat izango dute, azken urteko aurrekontuari %5eko igoera baimenduko zaio gehienez. Igoera horiek gainerako elkarteetan diru banaketan duen eraginagatik. Ehuneko hori dirulaguntza ematea erabakitzen den unean finkatuko da, aurkeztutako eskaera eta programen arabera.

Jarduera kulturaletarako dirulaguntzak.

Onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten guztiei aurkeztutako aurrekontuaren % berdina emango zaie. Aurrekontu igoerek muga bat izango dute, azken urteko aurrekontuari %5eko igoera baimenduko zaio gehienez. Igoera horiek gainerako elkarteetan diru banaketan duen eraginagatik. Ehuneko hori dirulaguntza ematea erabakitzen den unean finkatuko da, aurkeztutako eskaera eta programen arabera.

7. Artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa

Justifikazio hau aurkezteko epea **2027ko urtarrilaren 20ean** izango da.

Dirulaguntza emandakoan, azken ordainketa bideratu ahal izateko onuradunak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- Diruz lagundu den jarduera programaren memoria xehatua.
- Gastuen balantze ekonomikoa (araututako ereduaren arabera).
- Hizkuntza irizpideen betetze maila adierazten duen agiria.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, eskuprogramak...)
- Fakturen zerrenda excel formatuan.
- Egindako gastuen agiriak (fakturak edota baliokideak); "gastu-oharrak/tiketak" ez dira onartuko. Dieta edo gastu konpentsazio moduan egiten diren ordainketa guztiak transferentzia bidez, gehienez 200 eurokoak, (transferentzia egin izanaren agiria aurkeztu); eskudirutan salbuespena, eta inoiz ez 101 eurotik gorakoak.

Fakturek gutxienez honako datu hauek jaso beharko dituzte:

- Zerbitzua ematen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFK/NAN).
- Zerbitzua hartzen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFK/NAN).
- Zerbitzuaren gaiaren identifikazioa.
- Zerbitzua egin zeneko eguna.
- Guztizko kopurua.

Auzoetako jaietarako eta kultur-jardueretarako dirulaguntzen kasuan, onuradunek aurkeztutako aurrekontuaren % 80 justifikatu beharko dute gutxienez. Eta funtzionamendu gastu orokorrak ezingo dira jai zein kultur-jardueren antolaketan barruan sartu.

Dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

- Lehiaketetarako eta txapelketetarako sariak: gehienez 300euro eta gehienez bi txapelketa edo sari.
- Errifak eta loteriak ez dira kontuan hartuko, ezta eskelak edo beste elkarteetan bazkidetzak ere.
- Txosnak, gabonetako saskiak eta elkarteko kideentzat egiten diren ekintza gastronomikoak (bazkariak, hamaiketakoak etab) ez dira kontuan hartuko.

- Auzotarrentzat antolatzen diren ekintza gastronomikoak: hamaiketako bat gehienez 500 euro eta bazkari bat gehienez 1.000 euro. Bat jaietan eta beste bat kultur-jardueratan.
- Ekintza kulturalen partaideentzat afari edo bazkariak justifikatzerakoan: 20 euro pertsonako 200 euroko mugarekin.
- Ez dira graduazio altuko edariak inolako kontestutan diruz lagunduko.

8. Artikulua. Bazterketak

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematearen aldeko erabakian ezarritako betebeharren bat hautsiz gero, kasua berrikusiko da eta, hala badagokio, dirulaguntza itzuliko da, dirulaguntzak emateko udal araudiaren 18. artikulua aurreikusitako eran.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta emandako kopurua ezeztatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke horretarako arrazoiak azalduz. Edonola ere, prozeduraren izapideak egitean, interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Udal Dirulaguntza Araudiak xedatu moduan, dirua itzuli behar duten elkarteek itzulketako dirua eta haiei dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dituzte.

9. Artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntza esleitzuz gero, entitate onuradunaren obligazioak izango dira, arau orokorretan adierazitakoez gain, honako hauek:

- Dirulaguntza jaso duen jarduera edo proiektua garatzea eta oinarri hauek erabakitako moduan arazoitzea.
- Administrazioak burutu beharreko egiaztatze-jarduerak eta udal kontu-hartzailetzak egin beharreko finantzen kontrolak erraztea.
- Jarduera berak jaso dituen laguntza publiko guztiak jakinaraztea erakunde emaileari.
- Dirulaguntza ematean kontuan hartua izan zen egoera baten aldaketaren berri ematea.
- Kultura Sailari galdetu eta horren baimena lortu gabe, aurreikusitako gastuak edo dirulaguntza jaso duen proiektua nabarmen aldatzen badira, jasotako kopuruak itzuliko dira.
- Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:
 - a) Diruz lagundutako jarduera adingabeei edo gazteei zuzendua denean (ikastaroak, antzezlanak, ipuin kontaketak, pailazoak...) jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.
 - b) Herritar orori zuzendutako idatzizko komunikazioa (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatzizko barne) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.
 - c) Herritar orori zuzendutako ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpena) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.
 - d) Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, euskaraz idatziz (egitarauetan, adibidez, *txokolatada*).
- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez.
- Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz.
- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.
- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerrean idatziz.

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko, edo bestelako laguntzarik emateko.

Ez onartzea, diruz lagundutako jarduera egingo den inguruan, publizitatean edo dirulaguntza jaso duten pertsona edo entitateek ekintza egiterakoan honelakoak ager daitezela: dirulaguntza ematen duen delegazioari dagozkion jarduera esparrutik kanpoko lema, adierazpen, pankarta, ekintza eta abar.

III.KAPITULUA

PROZEDURA

10. Artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Oinarri hauetan aurreikusten diren diru laguntzak norgehiagokako prozedura bidez tramitatuko dira. Esleipen-prozesuan eskariak aztertu eta esleitu dira aurrekontu ahalmenaren baitan.

11. Artikulua. Eskabideak

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.

Eskaerak Hernaniko Udaleko egoitza elektronikoan Elkartearen izenean erregistratuz aurkeztuko dira: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=040&hizkuntza=EU>

Bide horretatik ezin bada, aurrez aurre, HHZ – Herritarren Harrera Zerbitzuan, udaletxeko beheko solairuan. Astelehenetik ostiralera: 08:00 – 13:30 (asteartetan eta ostegunetan, 14:30-18:30 ere)

Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- a) Dirulaguntza eskabide normalizatua, behar bezala beteta eta bertan dauden aitorten guztiak sinatuta.
- b) Zerga bidezko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ araubidea egunean edukitzearen aitortpena.
- c) Bestelako erakunde, organismo eta abarri dirulaguntzak lortzeko egindako eskaeren aitortpena, edota, halakorik balego, jasotzen dituzten dirulaguntzen aitortpena.
- d) Dirulaguntzaren xede izango den jardueraren deskribapena eta gastu eta sarreraren aurrekontu orekatua.
- e) Identifikazio Fiskaleko Kodearen dokumentuaren fotokopia (I.F.K).
- f) Bankuko kontu korrontearen datuak eta titulartasun ziurtagiria.
- g) Lehenengo aldiz dirulaguntza eskatzen badu, erakundearen estatutuak eta curriculum: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentatuetako batzuk Hernaniko Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango. Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko. Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

12. Artikulua. Akatsen zuzenketa

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak zuzendu ez badira, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskabidearekin batera ez bada dokumenturik aurkezten eta eskatzaileak berariazko baimena eman ezean Hernaniko Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeetatik datuak bildu ditzaten laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak egiaztatzeke, eskabide zuzenean ezetsiko da.

13. Artikulua. Epeak

Eskaerak aurkezteko epe bakarria izango da. Epea hogeita hamar egunekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetatik kontatzen hasita.

Ezarritako epea nahitaez beteko da, eta ez da salbuespenik egingo.

14. Artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

- Elkartearen funtzionamendu arrunterako dirulaguntzaren %100 esleitzeko ebazpenaren ondoren.
- Lokalen alokairuko dirulaguntza esleitzeko ebazpenaren ondoren modu honetara:
 - Lokalaren alokairuaren %100 esleitzeko ebazpenarekin.
 - Lokaleko gastuen (elektrizitatea, gasa, ura...) %80a ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa. Eta %20 egindako gastu justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.
- Kultur Bira, auzoetako jaiak eta kultur-jardueretarako dirulaguntzak:
 - %80, dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.
 - %20, egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

15. Artikulua. Ebazpena

1. Dirulaguntzak ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da.
2. Dirulaguntzen behin-behineko ebazpen proposamena, interesatuei jakinaraziko zaie, Hernaniko Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar egun balioduneko epea emango zaie, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.
3. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da. Bertan jasoko da: eskaerak aurkeztutako pertsonen zerrenda, proposatutako dirulaguntza eta zenbatekoa. Behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartuz gero, behin betiko zerrendetako diru kopuruetan aldaketak egon daitezke. Alegaziorik egon ezean, edo ezeztatuak badira, ebazpen-proposamena behin betikoa bihurtuko da.
4. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik balego.
5. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea Udaleko erregistroan aurkeztu den egunetik kontatzen hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez badago, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.
6. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era zehaztuko dira. Eskaera aurkezteak ez du, berez, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik ematen, eta dirulaguntza orok berezko duen izaera diskrezionalaren baitan egongo da dirulaguntza ematea. Dirulaguntza ematea edo ez ematea erabakiko duen Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsioa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik, ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, edo bestela, Donostiako Administrazio- auzietarako Epaitegiaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

16. Artikulua. Ez betetzeak

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematearen aldeko erabakian ezarritako betebeharren bat hautsiz gero, kasua berrikusiko da eta, hala badagokio, dirulaguntza itzuliko da, dirulaguntzak emateko udal araudiaren 18. artikulua aurreikusitako eran.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta emandako kopurua ezeztatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke horretarako arrazoiak azalduz.

Edonola ere, prozeduraren izapideak egitean, interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da. 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Udal Dirulaguntza Araudiak xedatu moduan, dirua itzuli behar duten elkarteek itzulketako dirua eta haiei dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dituzte.

IV.KAPITULUA

KONTROLA ETA PUBLIZITATEA

17. Artikulua. Publizitatea

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdia eta oinarri arautzaileak eta haien babesean emandako dirulaguntzak udalaren web orrian ([www.hernani.eus /eu/dirulaguntzak](http://www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak)), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAOn) eta, Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalen argitaratuko dira, (<http://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/ge/eu/index>).

Diruz lagundutako jardueri publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatu duen pertsonak edo erakundeak Hernaniko Udalaren laguntza jaso duela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera.

18. Artikulua. Oinarrien interpretazioa

Dirulaguntza emateko ardura duen organoari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira zalantzarik sortzen bada haiei buruz erabakitzea.

19. Artikulua. Adostasun-adierazpena

Dirulaguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du oinarri hauek ezagutzen dituela, deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdia oso-osorik onartzen duela.

20. Artikulua. Datu pertsonalen babesa

Eskatzaileak adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere adostasunarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan trata daitezela, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko, nahiz eta datu horiek beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkien, Datu pertsonalak babesteko 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamendu Orokorren 6.1.e. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

21. Artikulua. Hizkuntza-oharra

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanaz gero, euskarazko testuak izango du balioa.